



BARREN
TOKIKOM



**Agarreko aurkikuntzak,
azalera**

salgai
2. fasea

etxegain
BIZIGUNEA

ARGITU ZURE IKUSPEGIA ETA
ETOR ZAITEZ **etxegain**-ERA

★
2 logelako
etxebizitzak
140.000 € -tik
hasita

elgoibar

WWW.ETXEGAIN.COM

Etxegain-en dena da altua,
prezioak izan ezik.



2 ETA 3 LOGELAKO 25 ETXEBIZITZA
IKUSPEGI ZABALAK DITUZTEN
TERRAZAK
TXOKOA DUTEN BEHEKO SOLAIRUAK
GARAJERA SARRERAREKIN
GARAJEA ETA TRASTELEKUA AUKERAN

GE grupo eibar
inmobiliaria

E: comercial@grupoelbar.com
San Frantzisko 32, behea - 20870 Elgoibar

943 31 66 11
689 66 08 01

OBRA FINANZIADUA POR
bankoa CAE
Grupo Crédito Agrícola

IMH
FABRIKAZIOAREN
ZENTRO AURRERATUA
CENTRO AVANZADO
DE FABRICACIÓN

LANGILEENTZAKO IKASTARROAK

%100 diruz lagunduta

70 ikastaro baino gehiago webgunean: **AUKERATU ZUREA!**



IKASTAROA	ORDUAK	HASIERA	IKASTAROA	ORDUAK	HASIERA
Planoen interpretazioa III. Multzok	25	2019/11/04	SIEMENS OPERATE fresatzeko makina: erremintak eta piezak neurtzeko zirkloak	14	2020/01/07
SOLID EDGE II. Multzok	30	2019/11/11	HEIDENHAIN 530: Programazioa	40	2020/01/27
CAE elementu finituak NX NASTRAN	32	2019/11/18	HEIDENHAIN 530: programazio aurreratua	14	2020/01/27
Autocad	40	2019/11/25	SIEMENS OPERATE Fresatzeko makina: G kodeko programazioa	40	2020/01/27
SOLIDWORKS II. Multzok	30	2019/11/25	Mantentze lanak eta matxuren zehaztapenak Makinan	16	2019/11/04
NX gainazalak	30	2019/12/02	Hidraulika	24	2019/11/04
CATIA gainazalak	30	2019/12/02	Trantsizioa S7-tik TIA portalera	12	2019/11/04
CAM POWERMILL (5 ardatz 3+2 fresatzeko Makina)	20	2019/11/04	Sistema mekanikoen muntaketa eta konponketa	70	2019/11/11
SIEMENS OPERATE Fresatzeko makina: lagundutako programazioa SHOPMILL	20	2019/11/04	TIA Portal Siemens automata programagarriak 1. maila	40	2019/11/11
SIEMENS Fresaketa: prestaketa eta erabilera	35	2019/11/04	Siemens Step 7 automata programagarriak 2. maila	30	2019/11/19
FANUC fresatzeko makina: prestatzea eta erabiltzea	35	2019/11/04	ABB roboten programazioa 2. maila	28	2019/11/25
Ohiko fresagailua	80	2019/11/06	TIA Portal Siemens automata programagarriak 2. maila	30	2019/12/03
HEIDENHAIN 530: prestaketa eta mekanizazioa	35	2019/11/18	ABB Roboten abiaraztea	8	2019/12/09
SIEMENS: programazio parametriko	15	2019/12/02	Neumatika	24	2019/12/09
HEIDENHAIN 530: erremintak eta piezak neurtzeko zirkloak	14	2019/12/09	Mekanizatutako produktua egiaztatzea	30	2019/11/04
HEIDENHAIN 530: 3+2 ardatzen programazioa	14	2020/01/07	Kalibrazio plana	16	2019/11/18

ENETZ EZENARRO

Matematika irakaslea EHU



Ezgauza

ez astirik eta ez gogorik ez zutenez inguratua zegoela sumatzeko ezgauza. Interesgarria ematen du, esango zion norbaitek, justu kontrakoa adierazten zuen jarrera ezin ezkutatu.

Eta Arkimedes? Aterako ziztaion. Adore izugarria erakutsiz, beste ahalegin baterako prest, eta hala ere, erakarri nahi baina uxatzeko erraztasun handiagoa duela jabetzen ez denaren modu karakteristiko horretan. Bai, fluido batean murgildutako edozein gorputzek, desplazatutako fluidoaren hainako pisu galera

pairatzen duela bururatuta, kaletik, biluzik, eurekaka jardun zuen zelebren hurre. Siracusakoa, Sizilian. Emango zien azken ezpatada, han jarraitzeko ausardia izan zutenak bertan zerraldo utziz. Pi zenbakiaren hurbilpen zorrotzaz, zirkuluaren azalera edo bere matematikako emaitzarik behinentzat har zitekeen esferaren azalera eta bolumenaren kalkularena entzuteko inor gertzen ez zelarik. Bai, gizona, bai: lau heren pi erre kubo, eskolan ikasitako hurre. Ez da txantxa, gero.

Harritu zen gazteei Euklides nor zen galdetuta inork haren entzuterik ez zuela ikusita. Ez zen konturatu, hala ere, jende gehienarentzat hutsalagiziren kontuetan zenbat ordu paseak zituen bizitzan. Euklidesen lan eskergaren nondik norakoak azaltzen hasi orduko, begietako dizdira hura zerk sortzen zion ulertzeko,

“Eta Arkimedes? Aterako ziztaion. Adore izugarria erakutsiz, eta hala ere, erakarri nahi baina uxatzeko erraztasun handiagoa duela jabetzen ez denaren modu karakteristiko horretan”



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euzko Legeburuaren Argitalaritza

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuiztak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ander Soraluze, Ane Astiazaran, Irti Agirreazaldegi, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño **INPRIMATEGIA** Geru Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:

ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

LAGUNTZAILEAK:

MENDAKO
1981

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► ESKERRIK ASKO

Eskerrak eman nahi dizkiogu Elgoibarko Udalari, gure lanak erakusteko Kultur Etxeko erakusketa gela utzi digulako. Era berean, eskerrik asko Elgoibarko eta baita kanpoko bizilagunei ere gure erakusketa ikustera etortzeagatik. Zuen bisitei esker, erakusketa orduak oso aberatsak izan dira. Mila esker guztioi.

**Mari Jose San Millan
eta Pepa Calleja**

► SEBAS ETA JOSEBA ETXERA

Eskaera hau egiteko igande honetan bizikleta martxa antolatu dugu Elgoibartik Oñatira. Biak adinekoak izanik (76

eta 73 urte, hurrenez hurren), kalean beharko lukete legea aplikatuz gero, baina espetxean mantentzen dituzte. Irteera 10:00 izango da, Kalegoen plazatik. Irteera beroa egin nahi dugu, nahiz eta igande goiza izan, eta bertara gonbidatu nahi ditugu bizikletaz martxa egin nahi dutenak ez ezik, Oñatira autoz joango direnak eta joatea ezinezkoa dutenak ere. Beraz, animatu eta etorri plazara igandean. Oñatira joango direnei esan ekitaldi bat egingo dela bertako plazan eta bertan musika (Ekiñe Casado eta Ines Osinaga), poesia (Itziar Ugarte) eta Joseba Azkarraga eta Pili Garciaren hitzak ere entzungo ditugula.

Mendi buelta bat egin ondoren, plan proposa. Bertan elkar ikusiko dugulakoan, igandera arte!

Sare

► OHARRA

Datorren barikua, azaroak 1, jai eguna denez ez dugu BARREN astekaria kaleratuko. Hurrengo zenbakia azaroaren 8an jasoko duzue. Horrez gain, urriaren 28tik 31ra BARREN astekaria itxita egongo da.

BARREN



Betirako gure bihotzetan

“Bizkaierazko eta gipuzkerazko euskalkien artean muga egiten duen hizkera da Elgoibarkoa”

▶ JESUS MARI MAKAZAGA FILOLOGOA

Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak 'Elgoibarko Berbetia' izeneko ikastaroa antolatu du, Udalaren laguntzaz. Jesus Mari Makazaga izango da saioen gidaria. Makazagak Elgoibarko berbetaren gaineko doktore tesia egin zuen, eta herritarren eskura jarriko ditu orain elgoibarreraz idazteko arauak. Azaroko lau eguaztenetan izango dira saioak, 18:30etik 20:30era. Interesatuek BARREN astekarian (943 744 112) edo www.barren.eus atarian eman dezakete izena.

- AINHOA ANDONEGI -

◆ Elgoibarko Berbetiari buruzko ikastaroa emango duzu. Zer eskainiko duzu bertan?

Ez da ikastaro trinkoa izango, zortzi ordu besterik ez dira izango, eta, hortaz, Elgoibarko euskararen ezaugarri nagusiak izango ditugu hizpide, nahiko gaitetik, azaletik begiratuta. Hizkuntzaren ataletan bereizita ikusiko ditugu: fonologia, deklinabidea, aditza, sintaxi-egiturak eta hiztegia. Elgoibarko berri-emaielen testuak eta entzungaiak ere izango ditugu ikastaroaren alde praktikoan.

◆ Lau saio izango dira, bi ordukoak. Nola egituratu dituzu saioak?

Aipatu ditudan atalen hurrenkera horretan eskainiko dut edukia, eta azalpen teorikoen artean tartekatuko ditut ariketa batzuk. Ezinbestean, etxeko-lan modura ere planteatu beharko ditugu ariketak.

◆ Zein tipologia-tako hartzaileak aurreikusi dituzu?

Badakit BARRENeko kazetariak etortzekoak zaretela; hortik aparte, irakasleak eta euskararekin herrian lan egiten duten teknikari eta profesionalak espero ditut. Gaian interesa duten norbanakoak ere bai, jakina.

◆ Zein berezitasun dauka Elgoibarko berbetiak?

Berezitasun nagusia esango nuke mugako hizkera dela: Mendebaleko (bizkaierazko) eta Erdialdeko (gipuzkerazko) euskalkien artean, muga egiten duen hizkera da Elgoibarkoa, eta, horrenbestez, alde bateko eta besteko ezaugarriak ditu. Nahaste handia dago. Adibidez, mendebaldera egiten dugu *jata* eta *jaku* formen hasierako J- horren ahoskerarekin, eta *dot* eta *dogu* aditz-formekin (eta ez *det*, *degu*), baina Erdialdeko euskalkira (gipuzkerara) egiten dugu *esan diot* aditz-formarekin (eta ez *esan detsat/dotsat...*) edo *lagunarekin*, *lagunarentzat* formekin (eta ez *lagunagaz*, *lagunarendako*).

◆ Zuk nola jaso duzu orain irakatsiko duzuna?

2007an argitaratu nuen liburua idazteko (*Elgoibarko euskara*).



Berbak, egiturak eta irakurgaiak) datuak biltzeko lantalde bat osatzen lagundu zidaten Elgoibarko Izarrak eta Elgoibarko Udalak: Ibon Arriola, Irune Iriondo eta Ainhoa Lodoso aritu ziren lan garrantzitsu horretan; eta haien lanari esker, Elgoibarko auzo guztietako eta inguruko herrietako hitzunen datuak bildu ahal izan genituen. Gero, datu horiek guztiak erabiliz, etorri zen haien analisi eta ondorioak ateratzea, eta azkenik, liburua. Gero, oinarritzat liburu hori hartuta, unibertsitatean 2009an doktoretza-tesi modura aurkeztu nuen lan sakonago bat egin nuen, datu gehiagorekin, elkarriketa zehatzagoekin, eta lanari ikuspuntu teknikoago eta akademikoagoa emanez. Lan horren ondorioa izan zen *Elgoibarko ahozko euskara* liburua, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak 2010ean elkarlanean argitaratu zutena, eta ikastaroaren oinarria izango dena.



Debarrenako Nagusilanek jasoko du Gure Balioak Saria, bakarrik dauden edadetuekin egiten duen lanagatik

Debarrenean gizarte balioen sustapenean nabarmendu diren pertsona edo elkarteak saritzen ditu Gure Balioak Sariarekin Debegesa garapen agentziak, Eibarko Udalaren eta Danobat Groupen laguntzarekin, eta aurten, eskualdeko Nagusilan elkarteek jasoko dute, bakardade egoeran dauden adinako lagunekin erakusten duten "elkartasun eta konpromiso sozialagatik". Eskualdeko gizarte, enpresa eta hezkuntza arloko bederatzita lagunek osatu dute epaimahaia, eta sari banaketa ekitaldia azaroaren 14an egingo dute, Eibarko Coliseo antzokian.

Nagusilan Debarrenak 20 urte baino gehiago daramatza lanean, eta gaur egun, 300 adinekori ematen diete laguntasuna eta babesa. Nagusilanek bako zein taldeko konpainia eta laguntza



eskaintzen ditu, gehienbat, eguneko zentro eta zaharren egoitzetan. Txangoak eta irteerak ere antolatzen ditu, administrazioko agiriak kudeatzen laguntzen diete adinekoei, irakurri ezin duenaren ondoan jarri eta irakurri egiten diete boluntarioek, eta baita haiekin mahai-jokoetara jolastu ere. 65 urtez gorakoen kopurua 0 eta 19

urte artekoena baino handiagoa dela ikusita sortu zuten 1995ean, Estatu Batuetako The Retired and Senior Voluntary Programme adinekoren boluntarioritza sozialaren esperientzian oinarrituta, eta zahartzaro-aktiboa sustatzea dute helburu nagusia. Eibarren, Sorluzen, Elgoibarren, Deban eta Mutrikun dituzte taldeak.

Hazinnova zerbitzua aurkeztu diete Deba arroko enpresa txiki eta ertainei, lana antolatzeko eta produktu zein zerbitzuak merkaturatzeko molde berritzaileak erakusteko

SPRI Taldeak eta Innobasque Berrikuntzarako Euskal Agentziak abiatu dute Hazinnova zerbitzua, eta joan zen barikuan aurkeztu zieten Debarrena eta Debagoieneko enpresa txiki eta ertainetako ordezkariari, Debegesaren Eibarko egoitzan. Hazzinova helburu honekin sortu dute: Lana antolatzeko modu berritzaileak eta produktu zein zerbitzuak merkaturatzeko molde berriak baliaitzeko aukera emateko enpresei.

"Guretzat oso pozgarria da halako ekimenak inguruko ETEei azaltzea. Enpresei eskaintzen zaien laguntza guztiak dira garrantzitsuak. Debegesa enpresei aholkatzeko eta laguntzeko prest dago beti, eta datorren urtean zehazki sektore ezberdinetako 20 enpresei lagunduko diegu proiektu ezberdinak garatzen", adierazi zuen Juan Angel Balbas Debegesako zuzendariak. Barikuko saioan, Eibarko Manufacturas Resort S.L. enpresako gerente Miguel Angel Arenasek parte hartu zuen, euren esperientziaren berri emateko. Arenasek esan zuen sekula ez dela ona proiektu berriak martxan jartzeko, baina aldi berean, hobe dela "gaur hastea bihar baino". Aitortu zuen ez dela bide erraza,



baina oker egindakoetatik ere asko ikasten dela ohartarazi zuen. "Behin abiatzen zarenean konturatzen zara hobetzeko dagoen tarteaz. Laguntza hauek baliagarriak dira, bidean aurrera egiteko. Oker egindakoak ere aukera bat dira hobetzen jarraitzeko".


Hazzinova zerbitzua eskualdez eskualde ari dira eza-gutzero ematen, ahalik eta enpresa txiki eta ertain gehiagorengana iristeko.

Domekan, hilaren 27an, zabalduko du Karakate Mikologia Elkarteak perretxiko erakusketa, Kultur Etxeko Sotoan

Urtero legez, jardunaldi mikologikoak antolatu ditu Karakate Mikologia Elkarteak. Jardunaldien barruan, hainbat ekintza egingo dituzte. Joan zen domekan egitekoa zen mendi irteera bertan behera geratu zen eguraldi iragarpenagatik. Bestalde, astelehenean, itxi zuten perretxikoen argazki lehiaketarako lanak aurkezteko epea. Bihar, berriz, gure inguruko mendietan batutako perretxikoak sailkatuko dituzte Aranzadi Zientzia Elkarteko laguntzarekin, eta domekan zabalduko dute perretxiko erakusketa. Kultur Etxean egongo dira batutako perretxikoak erakusgai, 11:00etatik 14:00ak bitartean. Astelehenean, berriz, eskola-umei zabalduko diete Sotoko atea. Herri Eskolako eta Elgoibar Ikastolako ikasleei perretxikoen inguruko azalpenak emango dizkiete Karakate Mikologia Elkarteko perretxiko zaleek Sotoan.



Gure Eskuk deituta, Karakate argizatuko dute gaur iluntzean Kataluniari elkertasuna agertzeko



Aiako Harriak

Kataluniako agintari independentisten kontrako epaia salatzeko ekitaldiek ez dute azkenik. Joan zen ostiralean, Katalunian deituta zuten grebarekin bat eginez elkarretaratzeak egin zituzten hainbat enpresatan, Rodisan, Alcortan eta Mendaroko ospitalean, esaterako, eta Elgoibar Ikastolako DBHko ikasleek lazo horiz bete zituzten kaleak. Gaur, berriz, Karakate argizatuzera deitu du Gure Eskuk. Montserrat mendia argiztatu zuten kataluniarrek lehendabizi, eta oiartzuarrek Aiako Harriak argiztatu zituzten gero. Geroztik, Uzturre, Aloña eta Zumaiako labarrak ere argiztatu ditu Gure Eskuk, eta gaurko ere hainbat deialdi ditu eginda. Elgoibarren, 17:30erako egin dute plazan batzeko deialdia, oinez joan nahi dutenentzat, eta 18:30ean, autoz doazenentzat. Autoak beteta igo daitezela eskatu dute.

Tecman enpresa zigortu dute langileen grebarako eskubidea urratzeagatik

Joan zen astean bukatu zuten greba mugagabea Tecman SVA SL enpresako langileek, enpresak eta sindikatuak akordioa lortu ostean (105 egun egin zituzten greban). Hala ere, Tecmanek jarraitzen du zeresana ematen. Izan ere, LAB sindikatuak auzitara eraman zuen Osakidetzaren eta Mendaroko ospitalean mantentze lanak egiten duen enpresa, langileen grebarako eskubidea urratzea leporatuta. Irailaren 20an hasi zuten epaiketa, eta epaileak arrazoia eman die langileei. Epaileak frogatuzat eman du enpresak kontratu mugagabea egiteko eskaintza egin ziola aldi baterako kontratua zuen langile bati, greba uztearen truke. Era berean, epaiak dio ezarritako gutxieneko zerbitzuak aise gainditu zituztela Tecmaneko enkargatuek. LAB sindikatutik oso larritzat jo dute Tecman auzian gertatutako guztia eta adierazi dute epaiak argi uzten duela auzi honen atzean ezkutatzen dena: "Osakidetzak jarrera antisindikalak eta greba eskubidearen urraketa onartzen dituela bere lantokietan".



Alvaro Arrizabalagaren ikasleak Agarreko kobazuloan indusketa lanetan.

“Aurkikuntza arkeologiko gehiagorako toki oparoa ematen du Agarreko kobazuloak”



▶ **ALVARO ARRIZABALAGA** ARKEOLOGOA

Astebetez ibili dira EHUko arkeologia ikasleak Mendaroko Agarre kobazuloan lanean. Labar-arte eta arte erabilkorra aurkitu dituzte, eta topatutakoak eta indusketa taldeko zuzendarien esperientziak bide ematen die pentsatzeko aurkikuntza gehiago izango direla. Mari Jose Iriarte Ikerbasqueko arkeologia eta paleobotanika irakasleak eta Alvaro Arrizabalaga EHUko katedradunak eta Historiaurreko Ikerketa Taldeko buruak zuzentzen dituzte EHUkoek Azpeitiko Antxeta arkeologia taldekoekin batera hasitako indusketa lanak. Barikuan itxi zuten kobazuloko atea beste urtebeterako, baina bi-hiru urterako lana izango dutela aurreratu dute. Bideoa ikusteko: Barren.eus.

- AINARA ARGOITIA -

◆ Indusketa lanak hasi dituzue berriro Agarreko kobazuloan. Zergatik?

Mendaroarren aspalditik ezagutzen zuten Agarreko kobazulo hau, baina aurkikuntza arkeologikoa 1966koa da. Lehenengo indusketak orduan egin zituzten, baina topatutako ezer ez zuten orduan Paleolito garaikotzat hartu. Pentsatzen zuten gauza batzuk Brontze Arokoak izan zitezkeela, eta beste batzuk Mesolito garaikoak, baina edozein kasutan, azkeneko izoztaldiaren ostekoak denak. Eta hala gelditu zen kontua, duela pare bat urtera arte. Orduan, nire ikasle batek Gipuzkoako azagaiak (adarrez egindako lantza-puntak) bildumatu zituen gradu ondorengo lanerako. Gipuzkoako aztarnategietan aurkitutako azagaiak aztertu zituen, eta

hemen topatutako batzuk Paleolito garaikoak izan zitezkeela jaso zuen. Hala, iaz, martxoan aldera, giltza eskatu genuen Gipuzkoako Foru Aldundian, berriro kobazuloa sartu eta indusketa-lanak planifikatzeko. Era berean, eta paraleloan, badaukagu beste proiektu bat zabalik, Agarren labar-arte gehiago topatzeko. Mari Jose Iriarte da proiektu horren arduraduna.

◆ Zer da Agarren topatu duzuen?

Batetik, kobazuloko sarreratik ehun bat metro eskubira, gorri egindako margo bat topatu genuen iaz eta kalkulatu zen duela 25.000 bat urtekoa izan daitekeela. Animalia baten erretratu figuratiboa da. Bizkarraldea eta atzeko hanka ikusten dizkiogu. Atzaparrekin eta

puntuz puntu margotu zuten, baina ezin dugu zehaztu zein animalia den. Beste aldean, ezkerreko partean, azkonar batek egindako tunel batean, lur azal-azalean, Paleolitoko bi pieza agertu ziren: zintzilikario bat eta azagai bat. Bietako bat, zintzilikarioa, ikusgarria da, oso pieza txukuna. Aurrez aurre ikusitako ahuntz baten irudia du, eta hori badakigu Madalen aldikoa dela, Madalen aldiko azkeneko fasekoa, Goi Paleolito amaierako kulturakoa beraz. Bi adar, bi belarri eta ahuntzaren hiruki itxurako burua ditu zizelkatuta, eta hor, lau marrarekin ahuntz bat irudikatzen arte horretan, ikusten da garai hartako gizakiek abstrakzioarako gaitasun izugarria zutela; baita labar-artearen ere, ez dugulako ahaztu behar guk parez

Goian, Agarren topatutako zintzilikarioaren irudiak, eta behean, azagaia.


pare jarrita plano batean ikusten ditugun irudi horiek, deformatuta marrazten zitutela haiek haitzean. Agarren topatu dugun zintzilikario honen antzeko beste bat, momentuz dagoen bakarra, Urdazubin aurkitu genuen, Berroberriako kobazuloan.

♦ **Zerk egiten du horren berezi kobazulo hau?**

Topatutako denak. Badakigu labar-artean gain, arte erabilkorra ere badagoela hemen, eta, badakigu, beste hiru-lau urtean egongo garela urtez urte hona etortzen, inguru hau arakatzeraz. Atzo bertan egon zen gure taldeko bat hemengo galeria ezberdinak miatzen, asko baitaude, eta badirudi labar-arte gehiago badagoela, beste mantxaren bat ikusi duelako, baina orain, prospekzio-lanak hasi behar dira, margo gehiago ez ezik grabaturik ere ba ote den ikusteko. Denborarekin joango dira agertzen. Azkeneko bost urtean gure taldeak urtero aurkitu du labar-pinturaren bat. Lehenengo bi-hirurak Danbolinzulon topatu genituen, Zestoan, eta orain aurkeztuko dugunarekin badira 30 bat. Oso gaizki kontserbatutako margoak dira denak, eta irudiak antzemateko, ordenagailu-programa bereziak erabiltzen ditugu. Kolore gorriak informatikoki indartzen ditugu programa horiek erabiltzaile, egun gure begiz ikusi ezin dugun hori ikusi ahal izateko. Izan ere, ez dugu ahaztu behar kobazuloak ente bizidunak direla eta urarengatik eta konkrezioengatik margoak hondatzen joaten direla. Edonola ere, garbi dagoena da Agarreko kobazulo hau gizakien bizitoki izan zela eta hori, aztarnategi arkeologiko hori, baloratu gabe dago oraindik. Oraindik 12.000-13.000 bateko antzinakotasuna duten objektuak topatu ditugu, eta sakondu egin behar dugu gehiago, benetan oparoa izango den mailarekin topo egiteko. Aurkikuntza gehiagorako toki oparoa ematen du honek eta.

♦ **Aurkikuntza gehiago izango diren itzaropena duzu, hortaz?**

Bai, esperantza baino gehiago. Momentuz azkonarrak azalatu ziguna daukagu, baina guk azkonarrak baino lan finagoa egingo dugu. Kasualitate handia



izango litzateke azkonarrak dagoen bakar horrekin topo egin izana. Ziur gaude egongo direla pieza gehiago.

♦ **Gaur itxi duzue atea beste urtebeterako. Zeintzuk dira hurrengo lanak orain?**

Bai, datorren urtean bueltatuko gara, ikasturtea amaitutakoan. Industen jarraituko dugu, eta ikusita zenbat sedimentu dagoen, nik esango nuke beste hiru bat urterako lana izango dugula hemen. Hala ere, arkeologian, lanak beti dira hasieran uste dena baino luzeagoak, normalean, zorionez, konplikatu egiten direlako gauzak. Ez zait inoiz gertatu, eta badaramatzat ia 40 urte arkeologian, uste izatea sekulako aurkikuntza izango dela eta azkenean ezer ez izatea.

[Elkarrizketa egiten ari garela oihu egin du indusketetan ari den ikasleetako batek eta topatutako pieza ekarri dio irakasleari].

♦ **Zer da hori?**

Suharri bat da, ejeke baten goiko zatia, distala esaten duguna. Suharria oso leku konkretuan dagoen harria da, eta historiaurrean oinarritzko lehengaia zuten, altzairuaren parekoa. Tresna guztiak harri mota honekin egiten zituzten Euskal Herrian. Suharriarekin oso aho zorrotzak lortzen zituzten eta honek berak ere oraindik oso ondo mozten du. Hau, testuragatik eta duen koloreagatik Kurtzio mendiarren mendi hegaletik (Barrika, Bizkaia) ekarritako suharria dela esan genezake. Mendarotik gertuen hantxe topa genezake suharria gainera.

♦ **Esan nahi duzu kanpotik inguratzen zutela lehengai hori?**

Bai, hemen ez dago. Beraiek baze-



kiten non topa zezaketen suharria eta zein kalitatetako, eta zertarako behar zuten kontuan hartuta, batera edo bestera jotzen zuten lehengai bila. Eurek bazekiten Gaintzurizketa aldean topa zezaketela suharria, baina oso kalitate txarrekoa, eta beraz, beste erremediorik ez zegoenean edota gauza handi eta arruntak egiteko bakarrik erabiltzen zuten hango suharria. Doitasun handiko tresnetarako ez zien Gaintzurizketakoak balio. Bigarren hurbilen Kurtzion dago suharria, eta gero Urbasan eta Trebiñun. Egia da kultura garatu ahala selektiboagoak ere bihurtu zirela. Neandertalei suharria baldin bazen berdin zitzaien nongoa zen, baina Madalen aldiko gizakiak ondo zekien zer behar zuten zertarako eta behar zuten suharri haren bila ibiliko zen batetik bestera. Ez zuten sekula kalitate goreneko suharria erabiltzen tresna arruntak egiteko; suharri hori estimatua zuten. Pentsatzekoa da leku jakinetatik mugitzen zirela suharri bila, eta horren lehengai preziatua izanda, egongo zirela hori kontrolatzen zuten taldeak ere. Kalitate handieneko suharria Landetako hegoaldean dagoena da, Chalossekoa. Chalosseko suharria oso gutxitan topatu da hemen inguruan. Donostia inguruan, Ametzagainako kobazuloan eta topatu da dezente, eta hori handik Gaintzurizketa gertu dutela.

Adriana Arrillaga

Eibarko Koro Gazteko kidea



Musika daruma zainetan Adriana Arrillagak (Elgoibar, 2002). Umetatik gustatu izan zaio dantzatzea eta abestea, eta oso gazte hasi zen musika eskolak jasotzen Elgoibarko Musika Eskolan. Pianoa jotzen ere hasi zen, gitarra ere bai, eta orain ukelelea ere jotzen du, bere kabuz ikasita. Baina, batez ere, kantua gustatzen zaio, eta horretarako prestatzen ari da. Elgoibarko koruan abesten eman zituen urte batzuk, eta gaur egun Eibarko Koro Gazteko kideetako bat da. ETB1-eko 'Ahotsak' saioan hartu zuten parte, eta horrez gain musika antzerkiak, kalejirak, eta kontzertuak ere egiten dituzte. Abesteko aukera dagoen edozein ekitalditan ematen du izena Adriana Arrillagak. Batxillergo Musikala ikasten ari da, eta iazko udan kurtso berezi bat egin zuen Madrilén, aho-melodia lantzeko. Aurrerantzean ere bide horretatik segitzea gustatuko litzaioke.

- AINHOA ANDONEGI -

“Umetatik maite dut musika”

◆ Batxilergo Musikala egiten ari zara Elgoibarko Institutuan. Nolatan aukeratu zenuen hori?

Jakin nuenean Elgoibarko Institutuan Batxilergo Musikala eskaintzen zutela, ez nuen zalantzarik izan. Argi neukan hori nahi nuela. Bederatzi ikasle bakarrik gaude, eta Elgoibarkoak bi gara. Bestek kanpotik etortzen dira. Institutuak ahalegin handia egiten du espezialitate hau eskaintzeko, eta eskertzekoa da. Gipuzkoan espezialitate hau eskaintzen duen zentro bakarra da. Zorte handia daukagu herrian bertan aukera hau daukagulako. Norbaitek agian uste du egun osoa kantuan eta dantzan pasatzen dugula, baina ez da horrela. Ingelesa, Gaztelania eta Euskara ikasten ditugu, Historia, musikaren analisia, artea, musikaren eta dantzaren historia, ikusentzunezkoak eta arte eszenikoak.

◆ Eibarko Koro Gazteko kidea zara. Nola iritsi zara bertara?

Orain dela hiru bat urte izan zen. Elgoibarko Musika eskolan kantua ikasten ari nintzen, baina zerbait gehiago egin nahi nuen. Ama hasi zen aukera gehiagoren bila, eta Eibarko koroa aurkitu zuen.



Eibarko koro gazteko kideak.

Probatzera joan nintzen, eta asko gustatu zitzaidan. Oso giro ona aurkitu nuen taldean. Koro Txikian hasi nintzen lehenengo, eta orain, Koro Gaztean nago.

◆ **ETBko 'Ahotsak' programan parte hartu duzue. Nolako esperientzia izan zen?**

laz ere ETBn agertu ginen, Eibarko sanjuanetan. Sostoa Abesbatzak, Trio de Medianoche taldeak eta guk kontzertua eskaini genuen. Aurten, *Ahotsak* saioan egon gara, eta esperientzia polita izan da. Bi bideo prestatu genituen programarako, eta horietako bat IMHko museoa grabatu genuen. Horrez gain, programan bertan beste kantu bat abestu genuen. Gutxiatik ez genuen lortu finalera iristea, baina ondo pasatzeaz gain, gure korua ezagutzera eman dugu eta oso bideo politak prestatu ditugu.

◆ **Koro Gaztearen barruan, zein da zure papera?**

20 bat neska-mutilek osatzen dugu taldea. Hiru ahots bereizten dira taldean: grabaek, erdikoak eta altuak. Nik goiko ahotsa egiten dut normalean, baina beharra dagoenean grabeean ere abesten dut. *Komodin* moduko bat naiz. Ahots erregistro nahiko zabala daukat, eta bi tonuetan moldatzen naiz ondo. Batzuetan bakarka abesten dut, eta beste batzuetan taldean. Bi moduak gustatzen zaizkit, kontua abestea da.

◆ **Non ikasi duzu abesten?**

Umetatik maite izan dut musika, eta oso gazte hasi nintzen musika ikasten, Elgoibarko Musika Eskolan. Solfeoko urte guztiak egin nituen, pianoa jotzen ere hasi nintzen, baina hura laga eta kantua ikasten hasi nintzen. Horrez gain, ahozko teknika ikasteko bi kurso ere egin ditut, eta iazko udan Madrilén bi asteko ikastaro bat egin nuen Edith Salazar *La Voz* programako irakaslearekin. Eta aurtengo udan antzerki musikarari buruzko beste ikastaro bat egin dut, Madrilén. Goizez interpretazioa, kantua eta dantza eskolak jasotzen nituen, eta arratsaldetan *workshop* saioak egiten genituen. Saio horietan *Rent* musikala prestatu genuen. Uztail osoa pasatu nuen Madrilén, eta pila bat



ikasi nuen. Datorren urteko udan ere joango naiz beste kurso bat egitera.

◆ **Noiz konturatu zinen kanturako dohaiak zenituela?**

Elgoibarko Musika Eskolan proba bat egin zigun irakasle batek. Eskalak abestu behar genituen, eta nik eskala guztiak abestu nituen. Irakaslea harrিতa geratu zen nire ahotsarekin, eta ni ere orduan konturatu nintzen kanturako balio nuela.

◆ **Zaintza berezirik egiten al duzu ahotsa ez galtzeko?**

Saiatzen naiz ez hozten, katarrorik ez harrapatzeko, eta edariak izotzik gabe edaten ditut. Eztarria apur bat itxita igartzen dudanean ezitia hartzen dut, eta saiatzen naiz egun batzuetan ahotsari atseden ematen.

◆ **Koro Gaztean abesteaz gain, beste talderen batean edo hartzen duzu parte?**

Bai, Eibarko musika eskolan talde bat daukagu, eta ni naiz abeslarietako bat. Horrez gain, ukelelea ere jotzen dut. Orain dela lau bat urte oparitu zidan amonak, eta nire kabuz ikasi dut jotzen. Gitarra klaseak ere jasotzen ditut eta pianoa ere jotzen dut. Denetik egitea gustatzen zait, baina batez ere, abestea.

◆ **Etokizunari begira, zein asmo dituzu?**

Ez dakit zer egingo dudan. Batxilergoa bukatu ondoren gustatuko litzaidake musika ikasketetan sakontzea, baina Euskal Herrian ez dago aukera handirik. Musikaren kantu lirikoa edo jazz estilokoa eskaintzen dute, baina urte bakoitzean bi ikasle soilik hartzen dituzte eta ia ezinezkoa da han sartzea. Madrilén eskaintza

gehiago dago eta aztertzen ari gara. Antzerki musikala ere gustatzen zait, eta hori izan daiteke aukera bat, baina ez dakit. Ikusi egin behar da gero lanerako dauden aukerak ere.

◆ **Nola hartu dute etxean musikarako daukazun afizio hau?**

Oso ondo, badakite hau guztia bene-tan gustatzen zaidala eta gurasoek beti eman didate euren babesia. Nire amona Parrokiako Koroko zuzendaria eta piano irakaslea izan zen, eta, agian haren eraginez izango dut afizio hau. Gurasoei ere gustatzen zaie musika, eta artea orokorrean. Oporretan joaten garenean saiatzen gara kultur ekitaldiak edo museoak ikusten. Umetatik izan dut kulturarekin harremana.

◆ **Lotsatia dirudizu. Nola egiten diozu aurre beldur eszenikoari?**

Oholtzan erabat aldatzen naiz, eta dena ematen dut. Hasieran sentitzen nuen beldurra, baina niri abestea gustatzen zait, eta nire abestiak jendarekin partekatzea oso polita da. Orain antzerki batekin gabilta, Juanma Cano eta Maite Lorenzok zuzendutako *Los teloneros del chocolate*. *Forjarien kanta* musikala ere egin genuen, eta beste batzuetan kalejiran irteten gara Eibarko trikitilariekin. Denetik egiten dugu. Abesteko aukera ematen didaten ekitaldi guztietan parte hartzeko prest egoten naiz. Erromeria horietan irabazi izan dugun diruarekin bi bidaia egin ditugu Madrilera eta Bartzelonara. Agenda bete-betea daukagu. Asteko egun guztiak Eibarren pasatzen ditut kantuan, dantzan edo instrumentuak ikasten.



▶ AITOR BADIOLA

SERIOUS BUSINESS TALDEKO KIDEA

“16 urterekin izan nuen lesio baten ondorioz hasi nintzen gitarra jotzen”

Bizikletan izandako istripu baten ondorioz hartu zuen Aitor Badiolak (Elgoibar, 1975) gitarra eskuetan estreinakoz 16 urte zituela, eta ordutik ez dio gitarra jotzeari laga. Blues eta rock musika estiloari lotuta ageri da, batez ere, bere izena, baina bestelako musika ere egin izan du. Arima Beltza, Vanpopel edota Blustock taldeetan ibili ostean, Seious Business taldean dihardu orain. Maria Armendariz (baxua), Ander Zulaika (bateria), Antxon Sarasua (teklatura) eta Aitor Badiola (gitarra eta ahotsa) dira Serious Business, eta beraien bigarren diskoa kaleratu berri dute. Urriaren 31n emango dute diskoa aurkezteko lehenengo kontzertua Zarautzen, eta azaroaren 15ean Elgoibarren joko dute, Kultur Etxeko sotoan.

- AINHOA ANDONEGI -

♦ Serious Business taldearen bigarren lana kaleratu berri duzue. Zer jaso duzue diskoan?

Zazpi abestiz osatutako lana da. Orain dela hiru bat urte hasi ginen disko honetarako kantak prestatzen, baina lanik handiena azken urte eta erdian egin dugu. Disko motza egin nahi genuen, prezio merkeagoan saldu ahal izateko. Disko luzeak estudioko ordu gehiago eskatzen ditu, eta horrek produktua garestitzen du. Gaur egun jendeak ez ditu diskoak erosten. Nik neuk ere lehen askoz gehiago erosten nituen, orain kapritxoren bat baino ez dut erosten. Eta ni baino nagusiagoak direnek ere gauza bera esaten dute. Lehen biniloak erosten zitzutela eta Estatu Batuetatik dendara noiz iritsiko zen zain-zain egoten zirela. Orain Internet bidez kontsumitzen da batez ere musika, eta hori kontuan hartuta, tirada txikia egin dugu, eta bost euroan salduko dugu. Jendeak erraz erosteko produktua sortu dugu.

♦ Diskoak ez direla saltzen aipatu duzu eta jendeak Internetez

kontsumitzen duela musika. Nola egiten diozue aurre joera horri?

Horren kontra egiterik ez dago. Internet eguneroko erreminta bihurtu da denontzako; beraz, egin behar duguna da ematen dituen aukerak aprobetxatu. Nik uste dut Internetek min gehiago egin diela diskoak saltzetik bizi diren talde handiei. Gurea bezalako talde txikiei Internetek zabaltzeko aukera ematen die. Internetek talde txikiei erraztasunak ematen dizkie.

♦ Taldea hiru lagunek sortu zenuten, baina orain lau zarete.

Bai, 2015ean sortu genuen taldea Mariak, Anderrek eta nik. Lehenengo diskoa grabatu genuenean ere sartu genituen teklaturak, eta buruan bageneukan disko hura grabatu ostean teklista bat sartzea taldean. Antxon Sarasuari eskaini genion taldean sartzeko aukera, eta baietz erantzun zuen. Guretzako fitxaje oso inportantea izan da, entseguetarako lokalean bertan musika estudio bat daukalako eta horrek ematen digulako aukera gure ideiak momentuan bertan grabatu eta nola geratu diren ikusteko. Disko ho-

netan, gainera, kolaborazio bat izan dugu *Zeru moreak* abestian: Oihan Lopetegik idatzi ditu letrak, eta ahotsa ere berak jarri dio.

♦ **'The last port session' jarri diozue izena disko berriari. Zer adierazten du izenburu horrek?**

Azken Portuko sesioa esan nahi du. Gure entsegu-lokala Azken Portun dago, Zarautzen, eta Antxonon grabaketa estudioak Last Port izena dauka. Azken Porturi keinu bat egiteko modua izan da. Diskoa, baina, Elkar estudioan grabatu dugu Victor Sanchezekin. Elkarrek soinu aldetik aukera eta baliabide askoz gehiago eskaintzen ditu, eta disko honetan kontu handiz zaindu dugu soinua. Kanta bakoitzak musika estilo bat dauka, eta bakoitzari bere soinua propioa jarri nahi izan diogu. Aurrekoa baino musika estilo zabalagoa dauka honek, eta oinarrian bluesa eta rocka baditu ere, funky, hard rock, soul eta jazz estiloak ere landu ditugu. Oso gustura geratu gara emaitzarekin.

♦ **Zein motatako gaiak lantzen dituzue zuen abestietan?**

Denetariko gaiak lantzen ditugu; gizarteko gaiak. Amodioa, immigrazio politika edota behar zuen tren geltokian gelditu ez den baten istorioa. Disko honetan, baina, badago abesti berezi bat, *Sara* izenekoa. Gure alabari eskainitako kanta da. Diskoa konposatzen ari ginela jaio zen gure alaba, eta bere bizitzako lehenengo lau orduak deskribatzen ditu kantuak. Abesti oso berezia da niretzat, orain sortu dudana bereziena.

♦ **Serious Business dauka izena taldeak, negozio serioa, baina zuek ez zarete musikaz bizi, ezta?**

Ez, Maria eta biorentzat zaletasuna da musika. Antxon eta Ander bai dira musikari profesionalak, baina guk gure lanbidea daukagu. Musikak gure bizimoduan leku garrantzitsua dauka, baina dagoeneko adin bat daukagu eta ez gara egunero entseatzen duen talde bat. Diskoa sortzen eta grabatzen ibiltzen garenean beharrezkoa den denbora guztia eskaintzen diogu, lana ondo egin behar delako, baina bestela beharra dagoenean bakarrik elkartzen gara. Bakoitzak bakarka lantzen du bere zatia etxean, eta gero denok batera jotzen dugu. Musika obligazio bihurtzen denean, erre egiten zara, eta gure helburua taldean ondo pasatu eta musikaz gozatzea da. Musika talde batean elkarbizitza etxean bezalakoa izaten da, eta ordu gehiegi elkarrekin pasatuz gero, denetariko haserreak sortzen dira. Beraz, nire ustez askoz hobeto da lasai hartzea. Giro oso ona daukagu taldean, eta hori eskertzen da.

♦ **Noiz hasiko zarete diskoa aurkezteko kontzertuak ematen?**

Diskoa salgai dago, eta kontzertuak ematen datorren astean hasiko gara. Urriaren 31n emango dugu estreinakoa, Zarauzko Modelo aretoan eta azaroaren 15ean izango da bigarrena Elgoibarren, Kultur Etxeko sotoan. Aurrera begira, blues edo jazz jaialdietan jotzea gus-tatuko litzaziguke.

♦ **Zure musika ibilbidea blues eta rock estiloari lotuta ageri da beti. Nondik dator kizu zaletasun hori?**

Ba ez dakit. Gure garaian heavy musika edo rock radical vasco bezala ezagutzen dena entzuten zen pila bat; Metallica, Iron Maiden, La Polla eta horrelakoak. Baina nik bluesa deskribitu nuen, eta izugarri gustatu zitzaidan. Arima Beltza sortu genuenean ere jende askok esan zigun nola aukeratu genuen estilo hori, baina jendeak ondo hartu zuen bluesa euskaraz egitea eta egin genuen gure lekua. Eta nik estilo horretan jarraitu dut. Vanpoppel taldearekin popa egiten genuen, Zuhaitzi [Gurrutxaga] hori gustatzen zitzaiolako, eta egia esan, proiektu hartan ere gustura ibili nintzen.

♦ **Noiz eta nola hasi zinen gitarra jotzen?**

16 urterekin izan nuen lesio baten ondorioz hasi nintzen gitarra jotzen. Umetan txirrindularitzan ibiltzen nintzen, baina bi belaunak mindu zizkidan tendinitisak. Urtebete kiriolik egin gabe egon behar izan nuen. Nire lagun guztiak futbolearen, pilotaren edo bizikletaren zebiltzan, eta ni ikastolatik irtendakoan, etxera. Hain nengoen aspertuta, egun batean aitaren gitarra akustikoa hartu nuela. Jo nuen lehenengo abestia Los Panchos taldearen *El reloj* izan zen. Poliki-poliki teknika hartuz joan nintzen, baina ez neukan gitarra elektrikoa erosteko dirurik. Pare horretan Eric Claptonek *Unplugged* diskoa kaleratu zuen, eta hango abestiak jotzen hasi nintzen aitaren gitarrarekin. Aurrerago *From the Cradle* izeneko diskoa argitaratu zuen, blues estiloan, eta Canal+ kateak eman behar zuen disko hori sortzearen entsegua. Baina Canal+ ordaindu egin behar zen, eta guk ez geneukan etxean kate hori. Herrian galdezka ibili nintzen ea nork zeukan, saio hori grabatu ahal izateko. Leonardok [Gorka] zeukala esan zidaten, eta kalean zehar ibili nintzen haren bila bideo-zinta bat emateko. Grabatu zidan, eta bideo hari aurrera eta atzera emanez atera nituen kantak! Hiru bideo-zinta gutxienez hondatu nituen. Handik urte batzuetara Amsterdamera egin nuen bidai batean, kaleko azoka batean aurkitu nuen saio horren DVDa, eta oraindik etxean daukat. Nire kabuz hasi nintzen gitarrarekin, baina gero musika eskolan eman nuen izena, solfeoan egin nuen, eta gitarra eskolak ere jaso nituen.



Aitor Badiola, Maria Armendariz, Ander Zulaika eta Antxon Sarasua.

112 argazki eta 135 marrazki aurkeztu dituzte Elgoibarko Udalaren 2020ko egutegia osatzeko lehiaketara

Epaimahaiak aukeratu ditu Elgoibarko Udalaren 2020. urterako egutegirako irudiak. Udalak jakinarazi du 28 herritarrek parte hartu dutela argazki lehiaketan eta denen artean 112 argazki aurkeztu dituztela lehiaketarako. Euskara Sailak, Herri Eskola eta Ikastolarekin elkarlanean antolatutako marrazki lehiaketan, berriz, Lehen Hezkuntzako bosgarren mailako 135 ikaslek parte hartu dute.

Udaleko eta Kirol Patronatuko ordezkarietz gain, Ongarri argazkilari taldeko Jokin Martinez eta Maite Maiora kirolariak osatu dute epaimahai. Eta saridunak honako hauek dira:

Argazki lehiaketako irabazleak:

Jose Ramon Cabrera Cid, Alberto Fernandez Picon, Asier Orbea Ostolaza BARRENEko kazetaria (bi argazki saritu dizkiote), Gurutze Ariznabarreta Acha, Iñaki Aragon Perez (bi argazki saritu dizkiote), Jabi Leon Casado, Maite Loiola Zelaia, Julen Ansola Irureta (hiru argazki saritu dizkiote), eta Oier Ramos Miguel.



Arg.: Julen Ansola

Marrazki lehiaketako irabazleak:

Yerai Tavares Teixeira, Iago Fernandez Juaristi, Nahia Alvarez Avila, Olatz Garate Osoro, Laura Gonzalez Jurado, Manar Ahdadou Ahyayouch, June Mosquera Arenas, Sare Azpiaz de la Arada, Gorka Sota Rodriguez, Luken Arriola Alberdi, Elene Fernandez Garate eta Josu Bastida Diez.

'Erasmus+' proiektuko gazteak martitzenean irtengo dira Irlandarantz



Unax Aseginolaza Rozas, Garazi Arriola Ayerdi, Macarena de la Paz Cabello, Maddalen Oñederra Gonzalez, Maddi Arriola Mendieta, Eider Ansola Ansotegi, Laia Aizpurua Cruz eta Leire Sasiain Uranga dira Erasmus+ egitasmoaren barruan Galway-ra (Irlanda) joango direnak. Europako hizkuntza aniztasunaz ohartarazteaz gain, Europako leku ezberdinetako nerabeek egoera linguistiko antzekoak bizi dituztela ikustaraztea eta elkarrekin "Europako herritartasuna eraikitzea" dira proiektu honen helburuak.

'Gagfather' antzezlanaren taularatuko du Yllana antzerki taldeak gaur Herriko Antzokian

Yllanaren azkeneko lana ikusteko aukera izango da gaur Elgoibarko Herriko Antzokian: *Gagfather*. Gagfather izeneko gaizkile talde batek ikaratuta dauka hiria. Haien atzetik polizia bihotzgabeak ari dira, kosta ahala kosta gelditu nahian. Umore beltza lantzen dute obran, eta Yllanaren zigilua antzeman daiteke obraren hasieratik bukaerara. 20:30ean hasiko da saioa.



Sustrai akordeoi taldea eta Haritz dantza taldea Valladoliden izan dira



Valladolideko Gure Txoko euskal etxeak Euskal Jaia antolatu zuen joan zen asteburuan, eta Elgoibarko Haritz dantza taldea eta Sustrai akordeoi taldea gonbidatu zituzten. Sustrai akordeoi taldeko kideek kontzertua eman zuten hiriko katedralean zapatuan, eta Haritz dantza taldeko kideek dantza egin zuten emanaldi berean. Besteak beste, *Bizkaia maite*, *El último mohicano*, *Juego de tronos* edota *The final countdown* abestiak entzun ahal izan ziren ekitaldian. Bukaeran, Haritz dantza taldekoek *Uztai txiki*, Aintzinako dantzak eta arin-arin bat dantzatu zituzten, Elgoibarko Udal Txistulari Taldeko bi kiderekin batera. Igandean, Gure Txoko abesbatzarekin jardun zuten kantuan, Valladolideko Plaza Nagusiko kaleen inguruan.

Mendaroko karstaren inguruko hitzaldia emango du gaur Morkaikoko Leizarpe Espeleologia Taldeak, Mendaron

Mendaroko karstaren etorkizunaren gainean jardungo dira gaur Mendaroko udaletxeko batzar aretoan Morkaikoko Leizarpe Espeleologia Taldekoak. Hitzaldian, *Bajo el suelo de Mendaro*, *por sus cuevas y simas* liburua ere aurkeztuko dute. Ia 400 orrialdeko liburua da, argazkiz, ilustrazioz eta topografiaraz betetakoa eta Interneten dago ikusgai, PDF formatuan. Udaletxeko batzar aretoan izango da hitzaldia, 19:00etan hasita.

Botibol taldeak kontzertua emango du gaur Kultur Etxeko sotoan, Sinuösek antolatuta

Sinuösek antolatu du kontzertua, eta Vincent Bestaven artista frantziarra da Botibol taldeko burua. Botibolek hirugarren lana kaleratu berri du: *La Fièvre Golby*, eta azkeneko egunotan hainbat kontzertu eman ditu Euskal Herrian zein Espainian. Azkeneko lanean gai asko sartu ditu, besteak beste, amodio eta antizipaziozko istorioak. Folk doinuei poparen anbizioa eta instrumentazio ugaria bezain zehatza gehitu dizkio. Kontzertua Sotoan izango da, 23:00etan hasita.

K.O. Etilikok kontzertua emango du bihar Maalan

Kintaden Eguna da bihar Elgoibarraren. Elgoibartar talde baten ekimenez egin zen iaz estreinako Kintaden Eguna, kinto ezberdinak batu eta adin guztietako elgoibartarrak jai-giroan elkartzeko. Aurten, Udalak jarraipena eman dio, eta biharko eguna girotzeko, kontzertua antolatu du. K.O. Etiliko taldea gonbidatu dute horretarako. Kontzertua Maalako parkean izango da, 23:00etan hasita.

'Una pastelería en Tokio' filma landuko dute gaur bideo forumean

Naomi Kawase zuzendari japoniarak zuzendutako *Una pastelería en Tokio* filma landuko dute gaur Loredi Salegik gidatutako bideo forumean (Kultur Etxean, 21:30ean). Dorayakiak saltzetik bizi den Sentaro gizon baten istorioa da. Sentarok iragarki bat jarriko du dendarako langile bat behar duela esanez eta Tokue, 70 urteko emakumea, agertuko zaio. Sentarok zalantza egingo du, baina lanerako hartuko du azkenean.

Arimen Gava antolatu dute Mendaron

Arimen gava antolatu dute Mendaroko Arno guraso elkarteak, ludoteka eta gaztelekuak eta Udalak elkarlanean, urriaren 31rako. Aurrez, urriaren 27an, Beldur Etxe bihurtuko dute San Agustin kulturgunea, 17:00etatik aurrera. Hilaren 31ko festa ludotekan hasiko dute, 17:30ean. Aurpegiak margotu, eskulanak egin eta galleta tailerra egingo dituzte, besteak beste. Ondoren, 19:30ean, kalejiran irtengo dira buruhandiekin, eta 21:00etan, afari beltza egingo dute Gaztelekuan.



Elgoibar izendatu dute 2019ko Europako Kirolaren Herri Onena

Kirolaren Hiriburua eta Hirien Elkarten Federazioak (ACES Europe) izendatzen ditu Europako kirolaren herriak eta herriak, eta 2019an izendatutakoen artean onenak izan diren herriak eta herriak ezagutzera eman zituzten asteon. Elgoibar da kirol herri izendapena jasotako artean onena. Kosiceko Unibertsitateak (Eslovakia) ebaluatu du 2019an Europako Kirolaren Herri izendapena jaso duten hamar herriek urtean zehar egindako lana eta abiarazitako kirol ekintzak. Elgoibarko Udaletik zehaztu dutenez, ez dute bakarrik ekintza kantiitatea aztertu, baita horien kalitatea, aniztasuna eta helburua ere. Era berean, parte-hartzea, bertaratutako publiko kantiitatea, difusioa edota ekintzaren garrantzia, boluntarioen kantiitatea edota inpaktu mediatikoa bezalako faktoreak aztertu ditu epaimahaiak. Antolatzaileen gutuna jaso du Elgoibarko Udalak, eta saria urtean zehar egindako lan aparta eta esfortzu sistematikoaren erakusgarri dela dio gutunak. Elgoibar beste bereratzitza herrirekin lehiatu da azken hilabeteetan: Espainiako Jaca eta Torrijos (Espainia), Prelog (Kroazia), Gignac la Nerthe (Frantzia), Chianciano Terme, Livigno,

Omegna eta Sesto Calende (Italia) eta Dudelange (Luxenburgo). Sariak Nazioarte mailako erreputazioari bultzada baliotsua ematea suposatzen duela nabarmendu dute udal ordezkariak, "Elgoibar mundu mailako kirol-sektoreko foko sozial, politiko eta instituzionalean kokatuz".

Sari banaketa Bruselan

Elgoibarek abenduaren 10ean jasoko du saria, Europako Legebiltzarrean (Brusela, Belgika) egingo duten ACESek antolatutako urteko galan. Beste udal ordezkariekin batera, Ane Beitia Elgoibarko alkateak ACES Europeko (*Federation for the Associations of the European Capitals and Cities of Sport*) lehendakaria den Gian Francesco Lupatteliren eskutik jasoko du saria: urrezko bandera. Elgoibarko Udalak herriko kirol talde eta elkarteek egindako lana aitortu nahi du eta eskerrak eman baita. "Sari kolektiboa da hau, hori dela eta Elgoibarko herritar guztiak zoriondu behar ditugu, saria denona baita, guztiok merezi eta irabazi dugu" esan dute Udaletik.

Sanlok Gurutze Gorriari eman dio Bingo Solidarioan batutako dirua



Irailean egin zuten garagardo azokaren barruan Bingo Solidarioa eginen du urtero Sanlo eskubaloitza taldeak, eta batu zuten diruaren zati bat (%60), 610 euro, Elgoibarko Gurutze Gorriari eman diote. Sanloko arduradunek joan den urriaren 19an eman zioten txeketa Gurutze Gorriko lagunei, Alcorta Forging Group taldeak Jacar San Antonio taldearen aurka jokatu zuen partida hasi aurretik.

Morkaikoren mendi emanaldi zikloa azaroaren 7an hasiko da

2019ko Udazkeneko Mendi Emanaldi Zikloaren egitaraua ezagutzera eman du Morkaiko Mendizale Elkarteak. Lau saiok eta Bilbao Mendi Film Festivaleko bost film labur eskainiko dituzten emanaldiak osatzen dute aurtengo zikloaren egitaraua. Proposamen "orekatu" eta "osoa" prestatzen saiatu direla azaldu dute mendi taldeko kideek. "Espero dugu herritarren gustukoa izatea eta mendi ekintza desberdinez gozatzera hurbildutzea jendea", esan dute. Inazio Bereziartua musika eskolako auditoriumean izango dira emanaldiak, 21:00etan; eta, Herriko Antzokian emango dituzte film laburrak.

Xabi Smithy Mujikak emango duen hitzaldiarekin hasiko da aurtengo zikloa, azaroaren 7an. Mendizalea, erizaina eta blogaria da Smithy ordiziarra. *Aizkorriko kanalak: alpinismoa Goierriko bihotzean* izenburua duen hitzaldia emango du Elgoibarren, eta Gipuzkoako mendirik garaienak dituen kanaletan eginiko eskaladei buruz berba egingo du. Goierriin duten "altxor" hori ezagutzera ematea da bere asmoa. Kanadara eramango gaitu zikloko bigarren hitzaldiak, azaroaren 14an: *Expect the Unexpected: mendi-eskia Kanadan* izeneko ikus-entzunezkoa aurkeztera etorriko da Ane Hernani elorriarra. Duela bi urte, beste hiru lagunekin batera Kanadara egindako "ametsetako" bidaiako bizipenak jasotzen ditu Expect the unexpected ikus-entzunezkoan. Mendi eskia maite duten mendizaleek helikopteroz bakarrik joan daitezkeen parajetan ibili ziren Kanadan. Elur-jausi ikaragarri baten lekuko ere izan ziren eta birala egin zen bideo batean grabatu zuten. Handik sortu zitzaizen ikus-entzunezkoa egiteko ideia. Azaroaren 21ean emango dute zikloko hirugarren emanaldia: *Appalachian National Scenic Trail* izeneko. Jon Galdosek eginiko lana da. Azaroaren 22an Bilboko Mendi Film Festibaleko (BMFF) Mendi Tour ekitaldia Elgoibarrera etorriko da berriro ere, azken ediziooko bost film labur emango dituzte Herriko Antzokian (21:30). Ekaitz Maizen hitzaldiarekin amaituko da zikloa azaroaren 28an. Eskiatzaile eta alpinista etxauriarrak Karakorumen egindako espedizioaz berba egingo du Shipton Spire, *Karakorumeko saggara* izeneko saioan, Shipton Spire (5852 m) mendia igotzeko egindako espedizioaren berri, hain zuzen ere.



BTT irteera atzeratua eta Mikologia irteera bertan behera



Urriaren 20rako antolatuta zeuden bi irteera bertan behera laga behar izan zituen Morkaiko Mendizale Elkarteak, euriagatik. Batetik, Zarauztik Elgoibarrera mendi bizikleta irteera egitekoak ziren egun horretan, baina eguraldi iragarpenari kasu egin ostean, ez egitea erabaki zuten. Azaroaren 10ean egingo dutela jakinarazi du mendi taldeak. Bestetik, irteera mikologikoa egin behar zuten jardunaldi mikologikoen barruan, eta hori ere bertan behera gelditu zen.

Elgoibarko Lagun Taldean izena emateko

Elgoibarko Lagun Taldea txirindulari eskolatik jakinarazi dutenez, zabalik dago 2019-2020 denboraldirako izena emateko epea. Taldeko kide izan nahi dutenek Mintxetan duten egoitzan edo 665 878 615 telefono zenbakiko whatsapp-aren bitartez eman dezakete izena. Era berean, 60 euro sartu behar dituzte honako kontu zenbakian: 2095 5036 50 9118480894 (Kutxabank). Urriaren amaiera aldera gurasoekin bilera bat egingo dute, denboraldiari buruz berba egiteko.

LANA.....

Eskeraerak

Adinekoak zaintzeko eta garbiketarako egiteko prest nago. Ospitalean ere bai. Etxeko langile moduan edo orduka.

☎ 602 378 568

Erizain laguntzailea eskaintzen da adinekoak euren etxeetan zaintzeko. Arduratsua, esperientziaduna.

☎ 643 110 299

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Euskalduna naiz. Esperientzia daukat.

☎ 626 490 986

Adinekoak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko prest nago. Orduka. Gauzez lan egiteko prest.

☎ 641 426 543

Adinekoak edo gaixoak zaintzeko prest nago. Euskalduna naiz.

☎ 617 571 210

Adinekoak eta umeak zaindu eta garbiketarako lanak egiteko prest. Esperientzia daukat. ☎ 631 418 130

Adinekoak eta umeak zaindu eta garbiketarako lanak egiteko prest. Esperientzia daukat.

☎ 632 061 519

Adinekoak eta umeak zaindu eta garbiketarako lanak egiteko prest. Esperientzia daukat.

☎ 632 153 860

Garbitzaile lanak egiteko prest nago. Orduka.

☎ 637 102 725

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat.

☎ 631 103 865

Adinekoak zainduko nituzke, etxeko langile moduan.

☎ 631 975 260

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Etxeko lanak ere egingo nituzke.

☎ 631 923 059

Adinekoak zainduko nituzke. Gauak ospitalean pasatzeko prest. Titulua daukat. ☎ 671 989 434

Ile-apaintzaile lanak egiteko prest nago. Etxez etxe ere bai. Mota guztietako ile mozketak egiten ditut.

☎ 631 837 026

Adinekoak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko prest nago. Asteazkenetan, etxeko lanak egiteko prest nago.

☎ 681 013 032

Eskaintzak

Bi asteburutik behin lan egiteko zerbitzaria behar da Mendaroko taberna baterako. ☎ 670 974 969

ETXEBIZITZAK.....

Pisua hartuko nuke alokairuan. Euskalduna naiz. ☎ 611 160 221

Deban, 2 logeletako pisua alokatzen da. Azaroaren 1etik ekainera arte. Egokia irakasle eta ikasleentzako. ☎ 669 339 529

OSPAKIZUNAK.....

1944ko kintoen ospakizuna azaroaren 23an. 13:00etan elkartuko dira San Bartolome parrokia aurrean, eta taldeko argazkia atera ondoren luntxa egingo dute. 14:30ean bazkalduko dute, Sigma jategian. 50 euro ordaindu behar dira Laboral Kutxako kontu honetan: ES49 3035 0007 260071138198

BESTELAKOAK.....

Zilarrezko eskumuturrekoa galdu dut, Elgoibarko alde zaharrean. Eguzkilore baten irudia dauka. Balore sentimental handikoa da. ☎ 628 564 011




UDAZKEN ETA NEGUKO OIHAL BILDUMA BERRIA

- Neurrira egiten ditugu estore, gortina eta ohazalak.
- Oihaletan aukera zabala.


Bisita gaitzazu!

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com





Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Euzko Enpleu Administrazioaren Bazarreko Kontseilua



ROSA M^a PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Gure komunitateko bizilagun batek zuntz optikoa jartzea eskatu du, baina komunitateak ezetz erantzun dio, kableak fatxadatik pasatu behar direlako. Jakin nahi nuke komunitateak badaukan ezetz erantzuteko eskubidea edo, aldiz, bizilagun horrek egin dezakeen instalazio hori.

Legearen arabera, eraikinetako telekomunikazio zerbitzuen instalazioa edo aurretik daudenak berritzea eskatu dezake edozein etxejabe, eta erabakia hartu behar du komunitateko kideen kuoten herenak, betiere partaidetza kuoten herena ordezkatzen badute.

Komunitateak ezingo die instalazio berrien edo azpiegitura komun egokitzeko lanen gaineko kostuak eta ondoren etorriko diren mantenu kostuak eskatu hori egitearen aldeko botua eman ez duten bizilagunei. Hori bai, gerora eskatuko balute telekomunikazio edo energia zerbitzu horietarako sarbidea, eta horrek eskatuko balu instalazio berriak edo egindako egokitzapenak erabiltzea, dagokien kostua ordaindu behar luke; kostu eguneratua eta interes legalak ezarrita.

ONDORIOA: Instalazioa elementu komunetan egin behar da. Hau da, fatxadan, baina errespetatu egin behar da eraikinaren estetika eta aurretik dagoen kableatua eta jarriko den kableatu berria ondo antolatu behar dira.



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2



Argazkiak azaroaren 6rako, eguerdiko 12:00ak baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Igor**, hurrengo asteazkenean 5 urte beteko dituzulako. Zutaz asko gogoratzen den familia baten partez.



Zorionak, **Elia**, gaur 8 urte handi egin dituzulako! Primeran pasatuko dugu! Mila muxu! Asko maite zaitugu.



Zorionak, **Gorka**, atzo 8 urte bete zenituelako. Muxu bat familiakoena eta bereziki, Maiaren partez.



1951ko kintoen bazkaria azaroaren 9an Karakate jatexean. 13:00etan batuko gara Kalegoen plazan. Taldeko argazkia atera, eta segidan poteoa egingo dute. 14:45ean izango da bazkaria. 40 euro ordaindu behar dira Laboral Kutxako kontu honetan, azaroaren 7rako: ES40 3035 0007 29 0071138213.




Zorionak, **Angel**, igandean 8 urte beteko dituzulako. Muxuak familiakoena eta bereziki, osaba Daviden partez.




Zorionak, **Manex**, gaur 8 urte beteko dituzulako. Jose eta Carmen aitona-amonen partez.



Zorionak, **Lea**, asteartean 3 urte bete zenituelako. Muxu pila bat etxeko guztion partez.



Zorionak etxeko gizontxoari. 8 urte! Jarraitu horren irribarretsu, maitea. Muxu bat etxeko guztion partez.



Zorionak, **bikote!** Iritsi da zuen egun haundixa! Familixakuk gozatzeko prest gaude. Asko maite zaituztegu.

IKASGO ACADEMY AURREMATRIKULA EPEA **ZABALIK**
 2019-2020
 Basarte 13, behea - Elgoibar
akademikaelgoibar@gmail.com
 ● INGELES ERREFORTZUA
 ● CAMBRIDGE AZTERKETAK
 ● TALDE TXIKIAK
667 261 248
 (Leire)

40. urteurrena **UZURI** optika audio
 ELGOIBAR - DEBA San Frantzisko, 21 - Elgoibar Tel.: 943 740 359 www.uzurioptika.com

► **Urriko eskaintza:** 2. betaurreko monofokala **-50%**

► **Urriko zozketa:** 30 euroko 5 bono optikan erabiltzeko

30€ 30€ 30€ 30€ 30€

iraileko sarrituak:
 KRISTINA MARTIN
 BEGOÑA ELIZONDO
 HAIZEA BERISTAIN

25 BARIKUA

17:30 Karakate argitzera oinez doazenak plazan elkartuko dira. 18:30ean batuko dira autoz doazeanak.

18:30 Odol ateratzeak. Elgoibarko Odol Emaileen egoitzan.

19:00 Hitzaldia: *Mendaroko karstaren etorkizuna*. Aldi berean, *Bajo el suelo de Mendaro por sus cuevas y simas* liburua aurkeztuko dute. Morkaiko-Leizarpe taldeak antolatuta, Mendaroko Udaletxeko batzar aretoan.

20:30 'Gagfather'. Herriko Antzokian.

21:30 Bideo foruma: 'Una pasteleria en Tokio'. Haizeak antolatuta, Loredi Salegik gidatuko du saioa. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

23:00 Kontzertua: Botibol. Sinuösek antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

26 ZAPATUA

Azken zapatuko feria

9:00 Baserrietako produktuen erakusketa eta salmenta, Kalebarren plazan.

11:00 Txosna. Lagun Taldea Txirindulari elkarteko kideek jarriko dute.

12:00 Haur eta gaztetxoentzako artile tailerra.

Eguerditik aurrera, ganadu erakusketa, Aita Agirre plazan.

10:30 Bidezko merkataritzaren denda. Merkatu plaza aurrean.

23:00 Kontzertua: K.O. Etiliko. Kintanden Eguna ospatzeko, Maalako parkean.

31 EGUENA

17:30 Gurasoentzako formakuntza tailerra. 'Haurren autonomia: Erakutsi ala ikasi?'. Hizlaria: Nerea Mendizabal. Antolatzaileak: Kalamua guraso elkartea, EIGK, Arreiturrekoak, Haurreskolako gurasoak eta Ongizate Saila.

4 ASTELEHENA

19:00 Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea. Kalegoen plazan.

5 MARTITZENA

18:30 Erakusketa: Ikusi Makusi hezkuntza proiektua. Kultur Etxeko erakusketa gelan. Antolatzailea: Bakerako Lankidetzeta Batzarra.

7 EGUENA

21:00 Udazkeneko mendi emanaldia: *Aizkorriko kanalak: alpinismoa Goierriko bihotzean*. Morkaikok antolatuta, Xabi Smithy Mujika izango da hizlaria.

8 BARIKUA

17:00 Kiribil. Elgoibarko Izarrak antolatuta, Maalako parkean.

18:30 Odol ateratzeak. Elgoibarko Odol Emaileen egoitzan.

JARDUNALDI MIKOLOGIKOAK

URRIAK 26, ZAPATUA

Perretxikoen sailkapena, Aranzadi-rekin.

URRIAK 27, DOMEKA

11:00 Perretxiko erakusketa, Kultur Etxeko sotoan.

URRIAK 28, ASTELEHENA

Ikastetxeetako ikasleen bisita gidatuak.

ARIMA GAUA, MENDARON

URRIAK 27, DOMEKA

17:00 Beldur Etxea. San Agustin Kulturgunean.

URRIAK 31, EGUENA

17:30 Mozorro festa, Zelaikua plazan. Aurpegiak margotzea, eskulanak, photocalla, gaileta tailerra...

19:30 Buruhandien kalejira.

21:00 Afari Beltza. Gaztelekuan.

22:00 Film beldurgarria: 'The boy'. San Agustin Kulturgunean.



II. URTEURRENA

Eugenio Gonzalez Larrea

2017ko urriaren 27an hil zen, 79 urte zituela.

Haren oroimenez II. urteurreneko meza izango da, zapatuan, urriaren 26an, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.

Joango zaretenoi aldeztetik eskerrak.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez: 09:00-20:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (*)

25 BARIKAKUA	26 ZAPATUA	27 DOMEKA
Egunez Yudego	Egunez * Oruesagasti * Arriola (Lehen Etxeberria)	Egunez * Oruesagasti
Iluntzean Yudego	Iluntzean * Oruesagasti	Iluntzean * Oruesagasti
28 ASTELEHENA	29 MARTITZENA	30 EGUAZTENA
Egunez Barrenetxea	Egunez * Ibañez	Egunez Garitaonandia
Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Arriola (Lehen Etxeberria)	Iluntzean Garitaonandia
31 EGUENA	1 BARIKAKUA	2 ZAPATUA
Egunez Arriola (Lehen Etxeberria)	Egunez * Ibañez	Egunez Yudego
Iluntzean Arriola (Lehen Etxeberria)	Iluntzean * Ibañez	Iluntzean Yudego
3 DOMEKA	4 ASTELEHENA	5 MARTITZENA
Egunez Yudego	Egunez * Oruesagasti	Egunez Barrenetxea
Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego	Iluntzean Barrenetxea
6 EGUAZTENA	7 EGUENA	8 BARIKAKUA
Egunez Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola (Lehen Etxeberria)
Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola (Lehen Etxeberria)

* Fernandez:
Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gabez: 22:00-09:00
Zulueta. San Agustin kalea, 5 (Eibar)
943 820 498

Zinea (Herriko Antzokian)



'Ad Astra'

26 zapatua: 19:00 / 22:15

27 domeka: 19:00

28 astelehena: 21:30

'Mascotas2'

27 domeka: 16:30

'One cut of the dead'

(Ongarri zinekluba)

16 urtez gorakoentzat

31 eguna: 21:30

'Mientras dure la guerra'

1 barikua: 21:30

2 zapatua: 19:00 / 22:15

3 domeka: 19:00

4 astelehena: 21:30

'Dora y la ciudad perdida'

3 domeka: 16:30

ORDU ALDAKETA, DOMEKAN

Asteburu honetan neguko ordutegian sartuko gara, eta ordua aldatu beharko da. Hortaz, domekan, urriaren 27an, **03:00etan, ordubete atzeratu beharko** da ordularia.



ELGOIBARKO MERKATARIENTZAKO OHARRA

LAGUNDUKO AL DIGUZU ELGOIBARKO IZARRAREN **TONBOLA** OSATZEN?



Aurreko sei urteetan TONBOLAK izan duen estimazioak bultzatuta, aurten ere abenduaren 24an Elgoibarko Izarraren tonbola jarriko dugu Kalegoen plazan. Tonbola opariz janzteko, baina, zure laguntza behar dugu. Trukean BARRENen eta egunean bertan ere, emango dugu zure eskuzabaltasunaren berri. Opariren bat emateko prest zaudetenekok, deitu **943 744 112** telefono zenbakira edo idatzi **barren@elgoibarkoizarra.eus** posta elektronikora abenduaren 9a baino lehen.

Eskerrik asko!





1958

Aste honetako erretratu zaharra Carmen Soraluze ekarri du BARRENEko erredakziora. 1958. urte inguruan ateratako argazkia da, Ongarri kultur elkartearen. Maalan zegoen kultur elkartearen, eta han biltzen ziren tarteka emakume hauek. Gogora ditzagun zeintzuk diren: **Ezkerretik eskumara:** Margari Soraluze (†), Juanita Zulaika (†), Manuela Garate (†) Juanita Garcia (†) eta Carmen Soraluze.



Juan Albarran Martinez

2019ko urriaren 22an hil zen, 77 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Eskerrik asko gure bizitza
hain "goxoa" egiteagatik.***

Zure familia



ELGOIBAR 2019 AZAROA



50€-KO EROSKETA 40€-REN TRUKE

Baldintzak:

- Baliagarria 2019/11/04tik 2019/11/30era arte.
- Elgoibarren erroldatuta daudenentzat.
- Bonu bat NAN (helbidea indarrean izan behar da) edo erroldatze bakoitzeko.
- 100€ arteko bonuak meta daitezke.
- Gutxienez, 25€-ko erosketa egin behar da.

Bonuak azaroaren 4tik 30era erosi ahal izango dira.
(agortu arte)

Salmenta:
Kalebarren Plazan

Ordutegia:
Astelehenetik ostiralera
9:00-13:00
17:00-19:00



'Elgoibarko Berbetia' ikastaroa

Gidaria: Jesus Mari Makazaga filologo eta doktorea



Azaroak 6, 13, 20 eta 27
18:30-20:30

Kultur Etxeko hitzaldi gelan

IZENA EMATEKO

www.barren.eus / 943 744 112 (Ainhoa)
barren@elgoibarkoizarra.eus

IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA

Urriak 31, osteguna

PREZIOA

30 euro (Elgoibarko Izarrako bazkideek, 27 euro)



Antolatzailea



Laguntzailea



Elkarrekin



2019ko azaroaren 8tik abenduaren 1era



*Erreserbatu zure
tripontziak
menua!*

www.debabarrenaturismo.com

HOSTAL ITZIAR

ITZIAR, Alto de Itziar z/g
943 19 90 61 · 619285064
www.hostalitziar.es

York urdiazpikoz kiribiduriko Doniene baserriko porriak, Goienetzeko gaztaz egindako saltsarekin

Beliosoro Behekoa baserriko txahal-masailak Flysch txakolinaz egindako saltsarekin

Etxeko sagar-tarta Mendaroko txokolatz urtuaz bustita

KANALA

ITZIAR, Itziar Industrialdea 2
943 199 035
www.hotelkanala.com

Kantauriko hegaluze-mendrezka entsalada, labean erretako piperekin

Zapo- eta otarrainka-burruntzia, bere olio errearekin eta arrozarekin

Euskaltzerrri azpituna, laranja-saltsarekin eta patata-grabinarekin

Mendaroko txokolatzaz egindako coulanta mango-saltsarekin

LASTUR TABERNA

LASTUR - San Nikolas Plaza 5
943 199 033 · 679 928 393
www.lastur.eus

Pistoz eta garaiko barazkiak betetako taloa "Lasturko eran"

Kantauri itsasoko legatza plantzan, piper-saltsarekin

Euskaltzerrri zaharria estiarekin, labean gorrituta

Mendaroko txokolatzaz gozaturako sumendi-tarta

MENDIOLA

ERMUA, Erdikokale 19
943 54 35 80
www.facebook.com/Mendiola-Jatetxea

Baserriko arrautza galdarraztatua, sasoko barazkien eta patatez eta trufaz egindako kremaren gainean

Txipiroi kurruskaria berakatz beltzaz egindako oli-oliarekin eta Sagarmita txakolinarekin egindako bere zukuarekin

Akorta bakailao-trontzoa gure baserriko ondoekin egindako pil-pilarekin

Eusko Label buztan medailoia

Baserriko esnez egindako panna cotta Mendaroko txokolatzeko crumblearekin

BELAUSTEGI

ELGOIBAR, San Miguel gaina 44
943 743 102
www.belaustegi.com

Etxeko aperitiboa

Egutzeko ahuntz-gaztaz egindako entsalada epela, sagarrez eta ezti egindako ozipin-oliarekin

Akorta bakailao-trontzoa piperradarekin

Euskaltzerrri masailak, Sagarmita txakolinaz eta baserriko sagarrez egindako saltsan

Mendaroko txokolatz-moussea Belaustegi piku-tzozkiarekin

SALEGI

ITZIAR, Galtzada Kalea 13
943 199 044
www.salegi.net

Baserriko eskabetza salta leunetan, sasoko fruitu lehorekin eta ogi txigortuarekin

Begi-handi ravioliak Pelayo erara

Arroza pagasoarekin

Etxeko briochez egindako torrada karamelizatua intxaur-saltsarekin

URGAIN

DEBA, Hondartza 5
943 191 101 · 943 192 048
www.urgain.net

Onddoz eta Geoparkeko arrinez egindako krokatak

Perretxiko-entsalada epela

Kantauriko arrain- eta itsaski-krema

Geoparkeko legatza edo zapo plantan panadera patatekin, edo Eusko Label entrekota

Sagar-tarta Mendaroko txokolatzeko moussearekin



PARTEKATU ZURE ARGAZKIAK TWITTERREN ETA INSTAGRAMEN, #TRIPONTZIAK TRAOLA ETA JATETXEAREN IZENAREKIN ETA IRABAZI SARI BIKAINAKI*

Menua 28€
BEZ barne



Jatetxe gutxitan botila bar aukeran.
Sagardoa, Txakolina edo Aralar Enikozako ardoa.
Ura eta kafea barne.

